

Arrasate

P R E S S


1998ko
Otsailak 6
394. zenb.

Aulki gurpildunari lotuta

IKUSPEGIA: JOSE MARI ASTIGARRAGA • KULTURA: JOANA MANZISIDOR
KIROLAK: AITOR KORTABARRIA • IRITZIA: JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Kabía

ALTZARIAK



DEKORAZIOA

Konfiantza osoz.

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 79 27 70

Etsi edo jarrai

Gure gizartean nabaria da gehiengo baten pasotismoa herri eraikuntzan, nortasun eta etorkizun jatorra lantzean. Nondik pasotismo hori nortasunaren eta askatasunaren bideetan, aintzinatik eta hutsegina gabe, lehiatu den herri honetan?

Gazteei leporatzen zaie pasotismoa, baina helduak ere kutsatuak gaude erosotasunaz, edo nekez eta etsipenaz. Une batzuetan bihotzarekin erantzuten dugu ekintza samingarrien aurrean, baina pasibitatean laster erortzeko. Herriaren eraikuntzak lehia iraunkorra eta zuzena eskatzen du.

Azken berrogei urte hauetan herriaren mina eta burruka geure mina eta burruka egin



Jose Mari Astigarraga

“Helduak ere pasotismoak jota gaude”

dugunok, indartsu eta jator lehiatzen saiatu gara (zoritxarrez, ez beti zuzenbidetik).

Maila serio batean berreskuratu dira ukatuak geneuzken hainbat eta hainbat funtsezko eskubide kultural, politiko eta ekonomiko. Baina herriaren —gero eta beldur handiagoa diet konzeptu abstraktoei, oso manipulaerrezak direlako— herritarren

“nortasunak”, balore handiak galdu ditu lehiak luze eta neketsu horretan. Ez dugu “Demokratikoki” joketzen ikasi, hau da; elkarri entzunez, errespetatuz eta batera etorritik ekintzarako, nahiz ideologia desberdinak izan.

Alderdikierian eta etsaikerian erori gara.

Pertsonen oinarrizko eskubideak —bizia,

duintasuna, askatasuna— ez dira beti errespetatzen; zapaldu egiten dira alderdi bakoitzaren —nahiz ezkertiar nahiz eskuindar— estrategiarik komentatu zaien. Ezker-eskuineko indarkeriak herritarren kontzientzia eta nortasuna galbideratzen du, eta indarkeria radikalera edo pasotismora bultzatu. Jokabide biak dira okerrak eta galbide herri eraikuntzan. Noiz gaintutuko ditugu indarkeria itsutasun eta etsaitasun biak?

Norgehiagoka galgarri hau gaintutzea denen lana da, denen ahalegina eskatzen du. Bitartean, ez dugu bakerik izango, ezingo ditugu eguneroko arazoak zuzendu, betiko eztabaida eta deskalifikazio antzuetan eroriko gara berriro; eta bitartean, herria samintasunetan, odolkerian, pasotismora eta etsipenera bultzaturik.

Gauzak horrela, ez etsi, jarrai lanean.

394. zenbaki honetan

1998ko otsailaren 2an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/11	Kulturaren txokoa ..	28/29
Irakurlea idazle	6	Txutxumtxuak.....	12/13	Azoka plaza	30/31
Inkesta.....	7	Asteko gaia	14/16	Denborapasak	32
Euren ikuspuntutik	8	30 galderatan	21	Ikusi eta entzun	33
Astearen errepasoa	9	Kirolak jokoan	22/25	Fotozaharra	34

<i>Ikuspegia</i>	
Jose Mari Astigarraga.....	3
<i>Euren ikuspegitik</i>	
Josemari Velez de Mendizabal	8
<i>Aurrez aurre</i>	
Marta Izagirre	26/27
<i>Kulturaren txokoa</i>	
Joana Manzidor.....	29
<i>Asteko gaia</i>	
Aulki gurgildunari lotuta	14/16



Bost iskillera nahikoak dira elbarritu bati kalera irtetzea oztotatzeko. Zenbat traba gaintutu behar dituzte egunean zehar?

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udalak. **Zuzendaria:** Jose Aranazabal. **Kazetariak:** Ibaro Zubillaga, Marian Porcel, Patxi Montero. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirretxe, Juan Luis Azkarate, Altor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gaztrea Saria, ASAtaldeak, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorna, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Salnz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gerfu Koop. E. (Zubillaga, Oriñe).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldirizkarian adierazitako esanena eta inrtzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.

6

ostirala

■ ZINEA

Titanic. Alai zineman, arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

■ SANTA AGEDA JAIK

Gesalibarren Santa Ageda jaiak ospatuko dira. Arratsaldeko 19:00etan etxafleruen jaurtiketa. 20:30etan bertso eta kantu afaria. Bertsolariak: *Lizaso* eta *Egaña*. Ondoren, dantzaldia *Txinparta* taldearekin.

■ GAZTETXEAN BI EMANALDI

La destileria eta *M.D.H* taldeen kontzertua, gaueko 21:00etan, Arrasateko Gaztetxean. A.G.A.K. Ok antolatuta.

7

larunbata

■ ZINEA

Titanic. Alai zineman, arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

■ SANTA AGEDA JAIK

Goizeko 10:00etan *Raku* izeneko erakustaldia eta umeentzako eskulanak. 12:30etan, meza. 12:30etan, motozaleen bilkura eta omenaldia iaz hildako *Pako* motozaleari. 14:00etan auzoko abebatza etxez etxe ibiliko da Santa Ageda eskean. Arratsaldeko 16:15etan *Trialsin Txapelketa*. 23:00etan dantzaldia *Txinparta* taldearekin.

■ GESALIBARREN ROCK EMANALDIA

Santa Ageda jaien barruan, Gesalibarko plazan rock emanaldia izango da, gaueko 22:00etan. Taldeak: Arrasateko *Eskizofrenia* eta *Deskontrol*; Garagartzako *Harri-kara*.

8

igandea

■ ZINEA

Titanic. Alai zineman, arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

■ SANTA AGEDA JAIK

Eguerdiko 12:00etan meza. Arratsaldeko 16:00etan mus txapelketa.

10

asteartea

■ ZINEA

Titanic. Alai zineman, arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

11

asteazkena

■ SAN VIATOR IKASTOLAN BILERA

San Viator ikastolaren proiektua gurasoei ezagutzera emateko bilera egingo da San Viator Txikin. Euskarazko bilera arratsaldeko 17:45etan izango da. Gaztelaniazkoa, berriz, 19:00etan.

■ BESAIDEREN HITZALDIA

Gaia: Elgeako Mendilerroko Parke Eolikoa. Hizlariak: Besaide Mendizale Elkar-tea, Murruxiko, Eki, Amurrioko Mendikatearen aldeko plataformako kideak eta Ozaetako Urkilagarbi taldea. Hitzaldia, arratsaldeko 19:00etan izango da, Monterronen.

9

astelehena

■ ZINEA

Titanic. Alai zineman, arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

MUXIBAR PIZZERIA
79 11 25

otsailak 9tik aurrera...
ORDUTEGI BERRIA

arratsaldeko 6etatik aurrera
ZABALIK egunero!

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

12 osteguna

■ **ZINE KLUBA**

Celuloide. Amaia antzokian, gaueko 21:30etan. Sarre-
ra: 400 pta. Gazte Txartelare-
kin, 350 pta.

■ **UMEZAINTZAN BILERA**

Umezaintzako proiektua gurasoei ezagutzera emateko bilera egingo da Umezaintza ikastolan. Euskarazko bilera arratsaldeko 17:45etan izango da. Gaztelaniazkoa, berriz, 19:00etan.

■ **AMAIA OTADUIREN IRARLANEN ERAKUSKETA**

Otsailaren 13tik martxoaren 1era, Amaia Otadui egindako irarlanen erakusketa egingo da Harresi Aretoan. Ordutegia: egunero 18:00etatik 20:00ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 20:00ak arte.

■ **MEXIKORI BURUZKO ERAKUSKETA**

Otsailaren 16tik 22ra arte Mexikori buruzko erakusketa egingo da Monterronen. Ordutegia: egunero 18:00etatik 20:00ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 20:00ak arte. Komite Internazionalistak antolatuta.

■ **GAUR EGUNGO DANTZEN IKASTAROA**

Otsailaren 24tik martxoaren 31ra, gaur egungo dantzen eta jazz dantzen ikastaroa egingo da Arrasate Musikalen. Eskolak asteartetan izango dira arratsaldeko

19.00tik 21:00etara eta larunbatetan 17:00etatik 19:00etara. Matrikula: 5.000 pta. Ikasle eta langabetuentzat 3.000 pta. Irakaslea: Ana Mendiola. Berri gehiago Gazte Bulegoan. (77 00 65).

■ **ARRASATE MUSIKALEN 25. URTEURRENA**

Arrasate Musikalek 25. urteurrena ospatzeko ekintza ugari antolatu du ekainera bitartean. Egitaraua ondorengoa da: martxoaren batean, inguruko abesbatzen topaketak.

Martxoaren 8an, *Iziar* Euskal Ganbera Operaren emanaldia.

Apirilaren 5ean, Arrasate Musikalen banda eta piano kontzertua.

Maiatzean, Euskal Musika taldeen topaketak.

Ekainean, Arrasate Musikalen kontzertu-omenaldia.

■ **II. SAGORDOTEGI EGUNA ASTIGARRAGAN**
Otsailaren 14an, II.

Sagordotegi Eguna egingo da Astigarragan. Bazkaria arratsaldeko 14:30etan izango da, sagardotegian. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, trikitaliak Akelarre, artisau erakusketa eta Anje Duhalderen emanaldia egingo dira. Txartelak, Arrasateko AEKn edo Irati tabernan eros daitezke. Prezioa 3.500 pezeta. Izena emateko azken eguna, otsailaren 9a. Autobusak larunbatean eguerdiko 12:30etan irtengo du. Itzulera gaueko 24:00etan izango da.

■ **"MARTXOAK 8" HORMIRUDI LEHIAKETA**

Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte. Hormirudien neurriak gehienez 50x70 zentimetrokoak izan behar dira. Teknika librea. Afixean derrigorrez *Martxoak 8: Danok Batera* testua agertu behar da. Irabazleak 50.000 pezetako saria jasoko du. Afixak otsailaren 18a baino lehen bidali behar dira udaletxeko Emakume Saileran.

BERGARA PIEL

Pecari jaka luzea gerriko eta guzti
19.900 pta.tik aurrera

Emakumezkoen Nobuc jaka luzea
39.900 pta.tik aurrera

Gizonezkoentzako Pecari jaka luzea
29.900 pta.tik aurrera

BEHERAPENAK ARE ETA MERKEAGO!
ZATOZ AUKERA PAREGABE HONETAZ
APROBETXATZERA!

Espaloia, 6 • BERGARA • Tel.: 76 20 70

LAN ESKAINTZA

AED Elkarte

Eragilea

Betebeharra: Euskaltegiako ikasleekin lan egin, kalean-eta euskaraz hitz egin dezaten

Baldintzak

• Euskara ondo menperatzea.

Kontuan hartuko da

• Eragile lanetan esperientzia. • Gestio lanetarako gaitasuna.
• Harremanetarako erraztasuna. • Euskaltegian esperientzia.

Curriculumak aurkezteko epea otsailaren 18an bukatuko da.



Curriculumak AEDn jasoko dira.
Pablo Uranga kalea, 6 behea
20.500 ARRASATE • Tel: 77 12 28

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 6

- 22:00ak arte: Ruiz, Maala.
- Gaeuz: Guallar, Bergara.

Larunbata 7

- 22:00ak arte: Morales, San Andres.
- Gaeuz: Estella, Bergara.

Igandea 8

- 22:00ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
- Gaeuz: Estella, Bergara.

Astlehena 9

- 22:00ak arte: Español, Iturriotz.
- Gaeuz: Mozos, Bergara.

Asteartea 10

- 22:00ak arte: Corcuera, Musakola.
- Gaeuz: Camacho, Bergara.

Asteazkena 11

- 22:00ak arte: Irizar, Erguin.
- Gaeuz: Puy, Bergara.

Osteguna 12

- 22:00ak arte: Amezua, Santamaina.
- Gaeuz: Cuallar, Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
-------------------	----------

DYA

Antzuola	78 71 57
--------------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko; medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
.	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
----------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
--------------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Argindarra (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
.	79 78 44
.	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
PESA	902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
---------------------	----------

Monterron liburategia

Monterron	77 01 05
---------------------	----------

Irratia

Arrasate Irratia	79 58 77
----------------------------	----------

COLOMARI LAGUN DIEZAIOGUN

Batek baino gehiagok galdetuko duzue zer esan nahi dudan *Colomari lagun diezaiogun* esaldiarekin. Argi eta garbi: Coloma Jimenez, Cartajenako 15 urteko nire iloba da eta larri gaisorik dago. Hilabeteko bizia geratzen zaio. Bere gaisotasun larria, Ewing Sarkoma, gainditzeko ebakuntzaren premian dago, baina... Familiak laguntza ekonomikoa behar du, hiru asterako botikak 900.000 pta balio du eta. Dagoeneko, familiaren irabaziak Colomaren osasun-erantzukizuna hartu dira.

Arrasateko herriari idazten diot, hemengo herritarrak kausa onen alde konprometitzen direlako eta denon artean Colomaren bizia luzatuko duen laguntza ekonomikoa lortuko dugulakoan. Denok dakigu zenbat maite dugun bizitzea. Horregatik, goazen, mesedez, Coloma salbatzera!

Diruz lagundu nahi baduzue, hauxe da kontu korrontearen zenbakia: Coloma Jimenez Carvajal. 2043 0087 85 090052051 - Caja Murcia.

Egun hauetan txartelak jarriko dira salgai Arrasateko tabernetan eta dendetan, Colomak hain beharrezko duen ebakuntza ordaindu ahal izateko. Saria bi lagunentzako bidaia Egiptora izango da.

M^a Luisa Ayala Jimenez
Peroniño 73, Cartajena
Tel.: 968 52 92 57

Gutunera araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sor ez dadin araudi berria ezarri dugu, gutunetako sailean.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzue nahitanahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimo, gaitzenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenan kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.
- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi behar du. Telefono zenbakia nahikoa da.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offseta
Ferrerías, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62


FELIPE MADINA ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

M ARENAZA
Altzariak
Diseinua
Apainketa
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

Nahikoa egiten da elbarrien bizimodua hobetzeko?



Andoni Basterretxea
Basterretxea Gaiberritze Zentruko fisioterapeuta (35 urte)

Ez da nahikoa egiten. Orain eraikuntza berrietan elbarrientzako aldapak jartzen dituzte, baina herria ez dago prestatuta. Hori ikusteko aulki gurpildun batean jartzea baino ez dago. Oztopoak nonahi aurki daitezke.




Blanca Roncal
Ongizate zinegotzia (47 urte)

Azken urteotan aurrepauso handiak egin dira, baina oraindik asko falta da. Udalak bi lan egiten ditu: elbarri bakoitzari laguntzeko gestioak eta plan orokorrak. Esate baterako, onartu berri den oztopo arkitektonikoak kentzeko plana. Lan eremura ekarri eta elbarriak elkartzearen aldeko lana ere bultzatu nahi dugu.



Maria Martin
Elbarritu baten ama (65 urte)

Nahikoa ez da egiten, baina gure auzoan behintzat semea ondo ibiltzen da eta hori oso garrantzitsua da guretzat. Hala ere, herri osoa egokitu beharko litzateke arazo hori dutenak askatasun osoz ibil daitezkeen.



Santi Arenaza
Alejandro Altunako produkzio zuzendaria (28 urte)

Egin, askoz ere gehiago egin daiteke esparru guztietan. Gure enpresan arazo fisiko eta psikikoak dituzten lau pertsona ditugu. Lantegia egokituta dago. Harreran, administrazioan eta tailerrean daude, eta euren ahalmenaren arabera, askatasun osoz ibil daitezke. Horretaz gain, Gureak enpresara eta Santa Agedara ere bidaltzen dugu lana.



Segundo Figueredo
Jubilatua (73 urte)

Ez. Leku batzuetan elbarrientzako aldapak ikusi izan ditut, baina orokorrean gauzak ez dute haientzat prestatuta.



Loli Salguero
Etxeko andrea (47 urte)

Ez zaie inongo erraztasunik ematen. Arrasate ez dago prestatuta eta atariak ere oso ahaztuta daude; ez dago aldarrik ez elbarrientzat ez eta umeen kotxeentzat. Ez dugu ahaztu behar guztiok zahartuko garela...



Joxe Ijuria
Langilea (62 urte)

Gauza gehiago egin daitezke, baina azken urteotan uste dut gauzak asko hobetu direla.



Renée Harbustan
Langilea (44 urte)

Ez dut uste. Eskaileren alboetan elbarrientzako aldapak eta horrelako gauzak egin beharko lirateke.

USTEAK USTE

Musakola, baserri auzoa

San Isidro geroz eta bakartiago ikusten dut. Bera omen da baserriarren zaindaria. Bera da, halaber, Musakolako patroia santua. Maiatzaren 15ean meza handia egiten zen auzoko zaindariaren ohoretan. Auzoko baserriar guztiak —orduan ere asko ez, egia esan— abarkak etxean utzi eta arroparik dotoreenak jantzita agertzen ziren. Garai hartan Musakola —Zigarrola guretzat— baserri girotik hiri girora aldatzen ari zen, ordea.

Harrezkero, baserri asko desagertu dira: Aldekoa, Antoña, Arruena, Zeleta, Birekurtze Gainekua, Kataide... Azkena joan den astean: Birekurtze Azpikua. Aurrekoak ez bezala, hutsik egon zen azken hogeita hamar urteotan, bi lantegi artean itxita.

Hamabost baserri baino ez dira geratzen orain Musakolan. Hutsa. Bizitzak aurrera darrai eta ez du baserri itxurarik. Ez behintzat guk txikitan ezagutu-takoena. Birekurtze Azpikua joan da. A-20 iritsi da. Nor ote horren zaindaria?

Joxe Aranzabal



Aurrera goaz

Josemari Velez de Mendizabal

Pello Salaburu errektoreak hausnarketarako gomita egin digu, euskal gizartean euskararen erabilera duen maila kaskarra dela eta. Kezka zilegia, batez ere zalantzarik gabe, euskal hezkuntzaren kalitatea helburu nagusi izan behar duen pertsonarentzat. Eta, halaber, errektoregoko karguan ez egon arren, gure hizkuntzaren etorkizun hobe helburu dugun hainbatentzat ere.

Salabururekin bat nator ikuspegi orokorrean, hots, urte hauetako lan-ondorioak ez direla guk nahi bezain dirdiratsuak izan. Baina, ene iritziz, euskarak aurrera egin du. Eta hori ez da gutxi, belaunaldi baten tarte oraindik igaro ez denean, hizkuntzaren geroaz serio ahalegintzen hasi

ginenetik. Aste honetan, Institutuko aztergairaren bat zela eta, hamasei urteko nire alabak elkarrizketa idatzi bat egin dit. Eta, aitortu behar dut, pozarren aitortu ere, nik nire idazkietan erdietsi ez dudana freskotasuna igerru nuela lan-txoan. D ereduaren emaitza zuzena, jakina, batez beste euskara mailak —eta honetan ez naiz Pelloren aburukide— gora egin baitu, testu idatzietan behintzat.

“Urte honetako lanaren ondorioak ez dira nahi bezain onak izan, baina euskarak aurrera egin du”

Eusko Ikaskuntzaren bitartez Oxford-eko Unibertsitatean ikerkuntza lanetan ari den Miren Onaindiak “The Guardian” egunkariko mozkin bat pasatu zidan lehengo egunean. Tituluak, Oxford-eko ikasleek gero eta okerrago hitzegiten dutela abisatzen zuen. “Astakeriatik gaitzesgarrira” pasatu dela zioen kazetariak, ikaslerik gehienek hitz horien esanahia ere ez dutela eagutzen azpimarratuz. 1986tik 1995era egundoko galera izan bide du hizkuntzak Ingalaterrako unibertsitatek ospetsuenean, txirotasun maila eskandalagarri- heldu delarik. Eta zer gertatuko litzateke edozein lanpostu publikorako, euskararekin egiten den bezala, gaztelaniaren ahozko azterketak exigitu balira? Inork uste al du gaztelaniaren kalitateak gorantz egin duela?

Euskarak D eredu eta beste pitztaile askoren beharra dauka. Horietako batzuk elementu exogenoak ditugu. Gainerako gehienak, ordea, euskaldunoi dagozkigu eta horietatik —agian, ez garrantzirik gutxienekoa— bidea oraindik egiteke dugula behin eta berriz gogoratzea da. Baina, duda izpirik ez, euskara aurrera egiten ari da, oztopo guztien gainetik.

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Ezteiak eta banketeak
Tel.: 79 91 84
ARETXABAETA

TOKION
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE



astea bi hitzetan

■ **Birekurtze Azpikua bota dute**

Urtarrilaren 26an Moyua enpresaren makina batek birrindu egin zuen Musakolako *Birekurtze Azpikua* baserria. XVIII. mendean eraiki zen. Mujitarrak izan ziren han bizi izan ziren azkenak. Hala ere, hogeita hamar urte zeramatzan hutsik. A-20 eremua urbanizatzeko bigarren fasearen barruan bota da baserria. Udalaren asmoa da urtea amaitu aurretik Bidekurtzeta kaletik hasi eta lehengo zerrategiko mugetarainoko orubeak urbanizatu eta pres-tatu industrialdea egiteko.

■ **Juan Manuel Ozaeta hil da**

Astelehenean, hilak 2, Juan Manuel Ozaeta arrasatearra

hil zen, 60 urte zituela. 1963an ihes egin zuen herri-tik Juan Jose Etxabarekin batera. Hogeita hamar urte inguru egin zituen Iparraldean edo beste toki batzuetan bizi izaten. Martin Fierro miresten zuela eta, herrian *Gautxo* ezizenaz zen ezaguna. Azken hamar egunak Arrasateko Eskualde Ospitalean igaro zituen, gibebeko gaisotasunak jota. Hileta elizkizunak San Frantzisko elizan egin ziren. Hala ere, ez zuten hemen lurperatu, Iparraldeko Angelu hirian baizik.

■ **Gesto por la Paz-en agerraldia**

Sevillako azken hilketak eraginda, jende mordoia bildu zen larunbatean Gesto por la Paz erakundeak deituta.

Betiko moduan, agerraldia isila izan zen.

■ **Elkarlanerako hitzarmena**

Mondragon Unibertsitateak elkarlanerako hitzarmen garrantzitsua sinatu zuen asteazkenean Euskadiko ACICAE elkartearekin. ACICAE elkarteak Euskadiko automoziorako osagaien industriak biltzen ditu.

Hitzarmen honek indartu egingo du MUK sortu berri duen Automoziorako Unibertsitate Zentrua. Zentru honetan graduatuondoko eta hezkuntza iraunkorreko ikasketak eta ikerkuntza lanak egin ahal izango dira, denak EAEn automozioaren esparruan dauden enpresen beharrei begira.



ARRUENAKO ZUBIA

Arreua baserria ere Apikutara joan zen, Eroskiren hipermerkatua egiteko. Haren izena, ordea, egurrezko zubi batek eramango du, Eroski inguruko parajeak eta erreka bestaldekoak lotuko dituena. Zubiaren proiektua LKSk egin zuen. Zubia bera, berriz, Holtza izeneko enpresak. Legutiotik ekarri zuten kamioi berezi batean. Zubia 23 metro luze da eta 10 tonako pisua du.


“ Tontorren lasaitasunari darion poesia eta planetako gailurrik garaie-netako haize izoztuen lirika gorabehera, mendizale hauek (Inurrategi anaiek) duten zera sinestezina hauxe da: estresaturik bizi direla. Hemen behean, itsasmailan, dauden bitartean gogor egin behar izaten dute lan, argazki erakusketa ibiltariak prestatzen, hitzaldiak, diapositiiba emanaldiak —bidaldi bakoitzeko 3.000 argazki ateratzen dituzte batezbeste—, Euskal Telebistarentzako filmazioak, National Geographicek ekoizturiko 12 telebista atal aurkezten edo bidaldi bakoitzaren antolaketan bitona material eskuratzen. Al filo de lo imposible saioan grabatzeko Zeelanda Berrian igo zuten Cook menditik itzuli zirenetik izan duten atsedendaldi bakarra izan da Siete dias en el Tibet filma ikusi eta Manasluren magaletan irakurri ahal izateko zenbait liburu erostea. Eta tarteka bazkaloste lasairen bat edo beste, gastronomia baitute plazer iturririk atseginenetakoa. ‘Bai, horretarako ondo jan eta edateko, alegia elkartu egiten gara’ ”.

EL SEMANAL

1998ko otsailaren lean.

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65



**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiralean
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

MCCren industria taldeak 15.000 milioi pta irabazi zituen, 96an halako bi

Mondragon Corporacion Cooperativak 1997-2000 urte arteko plan estrategikoan ezarritako helburuak aise lortzeko moduan doa, oraingoz behintzat. *Tu-Lankide* aldizkariak ezagutzera eman duenez, 1997an industria taldea osatzen duten dibisio guztiek erraz gainditu zituzten 96an lortutako salmentak. Lehenengo aldiz bere historian, taldeak 300.000 milioi pta.ko muga gainditu du, fakturazioari dagokionez. Etxeko tresnak egiten dituen dibisioak, berak bakarrik, 100.000 milioi pta.ko fakturazioa egin zuen.

Hazkunderik handiena portzentaietan (%19koa) atzerrian gertatu da. Kanpoan 154.345 milioi pta fakturatu



Iaz 1.441 langune sortu zituen MCCren industria taldeak.

ziren. Espainiako merkatuan, ostera, salmentak 180.662 milioi pta.koak izan ziren, %11 alegia.

LANGUNE GEHIAGO

Lanari dagokionez ere, 97an 1.441 langune gehiago sortu zituen MCCk. Hazkunderik

handienak automozioan, etxe-koan eta osagaienetan gertatu ziren. Gaur egun MCCk 18.797 langile ditu.

Inbertsioei dagokionez, berriz, 97an taldeko kooperatibek 23.800 milioi pta inbertitu zituzten, 96an baino %35 gehiago.

Aurreikusita dagoen moduan, MCCk 104.700 milioi pta.ko inbertsioak egingo ditu 1997-2000 urte arteko epealdian.

Espainiaz kanpoko merkatuei buruz, helburua hauxe da: 2000. urterako 23 lantegi edukitzea kanpoan, fakturazio osoaren %15 ekarriko dutenak eta urte horretan 246.000 milioi pta.ko fakturazioa gainditu behako dutenak.

LKS^k egingo du pilotalekuaren proiektua

Joan den astelehenean Gobernu batzordeak LKS enpresari adjudikatu zion Uarkapeko pilotalekua egiteko proiektuaren erredakzioa. Proiektua egiteagatik 8.670.000 pezeta ordainduko du udalak.

Bigarren aldia da frontoia egiteko proiektuaren erredakzio lana adjudikatzen dela. Lehena Tecsa enpresak egin zuen. Uarkapeko lurjauziak, ordea, Tecsa lanak eten egin

ziren. Arazoa konpondu zenean, Tecsa aurrekontua bikoiztu egin zuen eta udalak orduan, bertan behera utzi zuen enpresarekin zuen kontratua. Orain LKSek proiektu berria landuko du, Gobernu batzordearen erabakiz.

OPOSIZIOAREN SALAKETA

Asteazken goizean berriz, prentsaurrekoa egin zuten HBk

eta Ezker Batuak. Xabier Zubizarretak eta Anjel Tijerok azaldu zuten, proiektu berriaren zergatiaz galdetu zuten Hirigintza batzordean eta martxorako proiektuaren inguruko informazio guztia izango zutela agindu zitzaizen. Astelehen honetan ordea, Gobernu batzordeak LKSri adjudikatu dio proiektua. Opozitzioko bi alderdiek, udalaren lan egiteko modua erabat aldatu dela azal-

du dute eta frontoia gaitzen inguruan ezkutukeria izan dela salatu.

Bi alderdietako bozeramailek azaldu zuten, Hirigintza batzordean eztabaidatu barik, bere izenean egin du Gobernu batzordeak adjudikazioaren diktamena. Hirutariko gobernuak herritarren gaitetik jartzen dituela bere interesak, esan zuten Zubizarretak.

Spek
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

Udalak ia hiru milioi pezeta dauzka kobratu barik, iaz jarritako isunetatik

Arrasateko Udaltzaingoaren bulegoetan 2.158 isun daude, 1997. urterari dagozkionak. Denek ere zirkulazioarekin dute zerikusirik, batez ere automobilak espaloietan edo oinezkoen pasabideetan apar-katzeagatik.

Iaz Arrasateko Udalak 1.600.000 pezeta jaso zituen zirkulazio isunetatik. Horrek esan nahi du jartzen diren hamar isunetik lau baino ez direla kobratzen.

Hala ere, udalak dio isunen dirubilketa asko hobetu dela iaz hartu ziren neurriei esker. Antza denez, iaz arte, udalak oso multa gutxi kobratzen zituen. Hori aldatzeko, berriaz, zenbait neurri hartu



Hamar isunetik lau kobratzen dira.

zituen: jendeak garaiz ordain zezan: berez 5.000 ptakoak ziren isunak 2.500 ptatan jarri ziren. Horrez gain, garaiz eto-

rriz gero ordaintzera, 500 ptako deskontua egiten hasi zen. Hori dela eta, gaur egun espaloian apar-katzeagatik isuna

jaso eta berehala ordaintzera doanak 2.000 pta ordainduko ditu. Gainera, iaztik hasita, udaleko dirubiltzaileek isunen jarraipena egiten dute, legea hautsi dutenei isunaren berri eskutitzez emanez.

Neurri hauei esker, udalak 96an baino diru dexente gehiago jaso zuen iaz. Eta, hala ere, ordaintzen dutenak %40 baino ez dira, erdia baino gutxiago. Ez dirudi, gainera, kopuru hori askoz gehiago igo daitekeenik. Arrasateko Udalak ez duelako onartu diru horiek kobratzeko bestelako neurririk hartzea. Kontuak kontu, udalak ia hiru milioi pta. ditu kobratzeko oraindik. Eskuratuko ote ditu inoiz?

Afrikarako berogailuak Marokon egingo ditu Fagorrek


Fagorrek erabat aldatu ditu Afrikarako zituen asmoak. Egipto bertan behera utzi eta Marokora eramango du Afrikako merkaturan salduko dituen berogailuen produkzio osoa. Orain artean, berogailu horiek Bergaran duen lantegian egin izan dira.

Fagorrek Egipto erabili nahi zuen tranpolin moduan Afrikako merkaturan sartzeko. Horretarako hitzarmen bat zuen Egiptoko Fresh taldearekin, baina honen arazoak tartean direla, guztiz baztertu ditu.

Orain erabaki duenez, Afrikan salduko diren bero-

gailuen produkzioa Bergaratik Marokoko Mohamedia herrian duen lantegira aldatuko du Fagorrek aurki. Mohamediako lantegiak, Casablanca ondoan dagoenak, hozkailuak egiten ditu gaur egun, baina aurten 10.000 berogailu egitea espero da. Fagorrek iturriek adierazi dutenez, hasieran Mohamedian egingo diren berogailuak Magreb osoan saltzen saiatuko dira. Ondoren, Afrikako herri frankofonoen merkatura joko lukete, eta bukatzeko, Afrika osora. Fagorrek egin dituen aurreikuspenen arabera, urtean bost eta hamar litroko

Fagor, linea zurian aitzindari



- Hozkailu produkzioa452.000*
- Ontzi garbigailuen esportazioa50.000*
- Berogailu produkzioa800.000**

* 1997ko lehen bederatzai hilabeteetan.
** Aurtengo helburua


20.000 berogailu egin behar-kolitzke Mohamediako lantegiak, begiz jo duten merkaturaren premiak bete ahal izateko.

Gaur egun Fagorrek eta Vaillant enpresa alemanak

elkarrekin duten Bergarako lantegian 800.000 berogailu egiten dira urtean. Mohamediako lantegiak berogailuak egiteko beharko dituen osagaiak Bergarako lantegitik eramango dira.

HAMAR URTEKO NESKA-MUTIKOAK

Joan den astean aurten hamar urte beteko duten neska-mutiko talde bat etorri zitzaigun bisitan Almen ikastolatik. Bisitaldian zehar jakinmin izugarria erakutsi zuten bai Arrasate Presi buruz, baita telebistaren gainean ere. Denak 1988an jaiok ziren, Arrasate Press jaio zen urte berean. Zorionak denoi eta urte askotarako!



PILOTAZALEEI SARIAK

Arrasate Kirolak Pilota Taldeak, bere egutegi sariak zozkatu zituen joan den ostiralean. Egutegi guztiak saldu zituztela eta, sari guztiak banatzea espero dute. Honako hauek dira zenbakiak eta opariak: **1. saria (5.322 zenb.) 90.000 pta;** **2. saria (4.534 zenb.) 50.000 pta;** **3. saria (6.654 zenb.) 25.000 pta;** eta azkenik, **4. saria (5.592 zenb.) 15.000 pta.** Sariak —kirol jantziak— Arrasate Kirolakek emango ditu.

MECA
GRUA ZERBITZUA

Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000

24 orduko zerbitzua 365 egunetan

MECA

皆様、お変わりなくお過ごしでしょうか。昨秋には、私もNHK（日本放送協会）の番組取材に快くご協力を賜り、あらためて御礼申し上げます。

お蔭様で、番組は完成し、過日1月11日、日本で全国放送いたしました。反響は大きく、「バスクの美しい風景と、そこに暮らす心身ともに健康そうな人々を見て、日本人の生き方について考えさせられた」、「バスクと日本の間につながりがあることを知り、縁を感じ、うれしくもある」、「ぜひ私もバスクに行ってみよう」といった声が、視聴者からの手紙等で寄せられています。今回の番組の成功は、一軍に、皆様のご協力の賜物です。重ね重ね感謝申し上げます。

お礼と同時に、お詫びを申し上げなければなりません。○○さんには、折角お忙しい中、時間をとっていただき、撮影にご協力いただいたのですが、49分という番組の時間的制約のため、今回撮影させていただいた映像を番組に盛り込むことが、残念ながらできませんでした。どうかご理解の上、お許しいただけますようお願い申し上げます。

お礼とお詫び方々、番組のVTRを送らせていただきます。記念にお納め下さい。なお、この番組は、日本の視聴者向けに作られているため、コメントはすべて日本語となっておりますが、この点、ご容赦下さい。いつか、また、皆さんとお目にかかれる日を楽しみにしています。このたびは、本当に有り難うございました。

1998年1月
NHK（日本放送協会）
Producer Torunobu Yasude

NHK TELEBISTAREN ESKER ONA EUSKARAZ

Japoniako Telebista Nazionalak (NHK) gutun bat bidali du Arkora japonieraz eta euskaraz idatzita, esker ona adieraziz, joan den udazkenean etorri zirenean eman zitzairen laguntzagatik. NHK-k saio berezia egin zuen Euskal Herriari buruz. Zuzendariak azaltzen duenez, saioak arrakasta handia izan zuen eta oso

erantzun interesgarriak jaso omen zituzten. Arrasateko *GoiHata* enpresari, Jon Gokoleak eta bere emazteak zuzentzen dutena, eman zitzaion gutuna euskarazko ardura.

GoiHata



AL-ANDALUS-EK ZORTZI URTE EGIN DITU

Al-Andalus elkarteak bere zortzigarren urteurrena ospatu zuen joan den igandean. Egun berezi hau etxe berrian

ospatu zuten lehen aldiz. Aurtengoan, lekuarekin arazorik ez dutela eta, Barakaldoko *Hijos de Almachar* andaluziar

etxeok gonbidatu zituzten. Hurrengo urteetan Euskadin dauden gainerako etxeak etorriko dira.

IZENAK

Alberto Iñurrategi

mendizale aretxabaletarrak kontua eskatu du Fagor Ederlan kooperatiban. Hiru urteko lan utzialdia egin eta gero, berau luzatzea proposatu zuen Albertok, baina enpresak lanean hastea edo behin betiko lagatzea eskatu zion. Iñurrategi anaiak etxera bidean dira, eguraldi txarra dela eta, Manasluko tontorra menderatu ezinik.



Jose Maria

Sainz de Vicuña

LKS Consultores enpresako zuzendaria izendatu dute. Donostiako ESTE fakultatean zientzia ekonomikoak eta enpresa zientziak ikasi, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan doktoretza egin eta Londresen MBA eskuratu zuen. Irakaslea da eta eskarmentu handia du zerbitzu enpresetako zuzendaritza lanetan.



Isabel Ramos

Ikertzaile oñatiarrak ikerkuntza lan bat argitaratu du ingelesez Edinburgeko Unibertsitatean: *Euskararen Normalizazioa Arrasaten*, 77 orrialdeko lana. Isabel euskaldun berria da eta EHU Ingeles Filologia ikasi eta gero, Hizkuntzalaritza Aplikatua ari da lantzen Edinburgeko Unibertsitatean.



GORRITIREN POTTOKAK!

Ezin falta Gorriti San Baleixoko jaietan. Larunbat arratsaldean atera zituen Gorritik animaliak bere kamioitik: pottokak, oilarrak eta haur guztiek harrapatu nahi

zuten basurdetxoa. Argazkiko neskek nahiago izan zuten pottoketan ibili. Nagusiek bestalde, erromerian ibili ziren gauean, *Anaiak* taldearekin.

Aulki gurpildun


Gaurkoan aulki gurpildun bati lotuta bizi diren lagunei buruz idaztea tokatu zait. Horretarako, ni neu aulki gurpildun horietako batean eseri nintzen herriko hainbat lekutara joateko. Lagunek eta ingurukoek, ~~er~~ zer nolako esperientzia den galdetu didate, eta nik, benetan ez dakidala erantzun diet. Ez dakit zer den aulki bati lotuta bizi izatea. Ezta, goizean esnatu eta edozer gauzarako familiartekoen laguntza behar izatea zer den ere. Ez dakit zer pentsatu duten, edozein lekutara sartzeko ahaleginetan, atea zabaltzen didaten gizonak edo emakumeak. Ez dakit ezer, nik neuk, edozein momentuan aulkitik altxatzeko aukera dudalako.

Errespetu apur bat ematen dit erreportaje hau idazteak. Istripua, gaitasuna, zahartzarua edo edozer dela ere, aulki gurpildun bat nahitahiezin erabili behar duen jendearen lekuan jartzea oso zaila iruditzen zait. Ez dut elbarri baten bizitza ezagutzen eta egun batez aulki gurpildun batean ibilita ere, ez dut eza-gutuko.

Gauzak horrela, bizitzak aulki batean eseri dituen lagunekin hitzegitea erabaki dut.

OHETIK KALERA

Mikel Otxoak gorputzari arrotz, eta hala ere, beharrez-



Alberto Fernandez elbarrituak elkartzearan alde dago, denon artean hobekuntza gehiago lortuko dituztelakoan.

koa zaion luzakin bezala definitzen du aulki gurpilduna. Metalezko aparatua gorputzaren luzapena bihurtzen da denborarekin, beharrezko poderioz. Ezin da bera barik ibili, baina ezta berarekin gus-

tura ibili ere. Eta hori ez da aulkiaren errua. Ohetik kalera bidean dauden oztopo guztiena baizik. Alberto Fernandez-ek milioi bat pezeta baino gehiago gastatuko du bere etxetik bakarrik irten ahal iza-

teko. Dirua, bere etxeko sukaldea eta kalea zuzenean lotuko dituen aldapa egiteko da. Mikelek, igogailu bat ipini zuen etxeko garajetik bere gelaraino. Horri esker bi solairuak jaitsi ahal ditu lanera joan

unari lotuta


ahal izateko. Ni, badaezpadan, kalean eseri nintzen aulkian. Bi morrosko alboan izanda ere, nire atarteko bi solairuak eta eskaileren estutasuna gainditzea ezinezkoa iruditu zitzaidan eta.

ETA KALEAN ZER?

Arrasate —tamalez, beste herri asko legez— ez dago elbarrituentzat egokituta. Espaloiak, eskailerak, zuloak, harriztatako kaleak, ate estuak, komunak, kutxazain automatikoak, telefono kabinak, tabernak, dendak, udaletxea, igogailuak, autoak, lantegiak...Egunero gainditu beharreko oztopoen zerrenda bukazina da.

➤ Komun batean sartzeko, aparkaleku estu batean egin behar izaten ditudan baino maniobra gehiago egin nituela kontatu diot Mikeli eta barre egin dugu. “Eguneroko bizitzan gauza txikiena ere arazo bihur daiteke; aulkia baino estuagoa den ate bat, elbarrituentzat prestatutako aldapetan aparkatzen duten autoak, zinematokiko besaulki mugiezinak... Ez da aldaketa handietan bakarrik pentsatu behar. Xehetasun txikienean ere bizitza errazten dute, baina horretaz aulki baten bizi garenok bakarrik ohartzen gara”.

Mikelen hausnarketak burura ekarri dit kutxazain batean gertatutakoa. Dirua ateratzera joan nintzen eta ezin iritsi txartelaren zirrikituraino. Banketxean sartu eta kutxazain baxuago batean ate-



Eguneroko bizitzako arazo asko arreta jarriz konpon daitezke, Mikel Otxoaren ustez.

ra behar izan nuen dirua.

Kale, etxe eta zerbitzu publikoen egiturek elbarriei sortzen dizkieten mugak ez dira txantxetakoak. Leku bate-tik bestera joateko, har daitezkeen bide guztiak aurrez

pentsatzea komeni dela konturatu nintzen, eskailera, kaleko lanak eta beste oztopo handiak sahiesteko. Ez duzunean bidea ezagutzen arazoak areagotu egiten dira. “Aulki elektrikoarekin zoaz eta 200

bat metro egiten dituzu. Bat-batean, gaindiezina den espaloiarekin egiten duzu topo. Badakizu zer den leku beretik buelta egin behar izatea?”, galdetzen dit Mikelek. Nik lagun bat izan nuen aldame-

“Aulki elektrikoarekin zoaz eta 200 bat metro egiten dituzu. Bat-batean, gaindiezina den espaloiarekin egiten duzu topo. Badakizu zer den leku beretik buelta egin behar izatea?”

Mikel Otxoa

nean oztopoak gainditzeko baina, bakarrik aurrera joko ote nuen? Ez, seguraski jausi egingo nintzen.

Albertori ez diot nire abenturak kontatu beharrik izan, berak zuzenean heltzen dio eta, hariari. "Kalera joateko beti behar duzu lagun bat, lehenago edo geroago, bidea moztuko dizun oztopoa gainditzeko".

EZINTASUNARI AURRE EGITEN

"Zartatekoa hartzen duzu, sei hilabete egoten zara Toledo-ko ospitalean, bizkar hezur-reen zauria duzula esaten dizu medikuak eta kitto. Horrek ez du bueltarik" kontatzen du Albertok. Horrela hasten da besteek ikusten ez dugun errealitatea. Kasu hauetan ezinezkoa da %100 osatzea. "Akaso aurrerago, ebakuntza bat eginez sendatuko gaituzte —esaten du Mikelek—, baina noiz? Nik nahiago dut horretan ez pentsatu".

Eguneroko errealitateari aurre egin behar zaio, baina ez da bat ere erraza. Hartzitatu-tako kaleetatik zehar joatea motokrosean ibiltzea bezala da (gaur egun kale berriak egiten dira eta, itxuraz polita geratzen delako edo, harriak ezartzen dira). Telefono dei bat egiteko, ez ahaztu kabina nolakoaren eta telefonoaren altuera zenbatekoa den; lagun bat bisitatzeko, nolakoaren etxe ataria edo igogailua zabala edo estua den. Eta abar, eta abar.

Nire joan-etorrietan, bazkaltzera joan ginen laguna eta biok jatetxe batera. Sartzeko ez genuen arazorik izan, baina mahaiaren hankak bata bestetik oso gertu zeudenez, ezin izan nuen aulkia behar bezala hurreratu. Ahozapia izterretan ipini eta tentu handiz jan behar izan nuen arrainzopa. Mikelek esan zidan, eta arrazoi osoz, ondo planifikatu behar direla irteerak.



Arrasateko kale, etxe eta zerbitzu publiko gehienak ez daude elbarriuentzat prestatuta.

IRTENBIDEAK NOIZKO?

Aulki gurgildunean eserita, laguna atzetik bultzatzen ninduen bitartean, askoren begiradak sentitu nituen. Gehienak, ezagunen begirada harrituak. Besteak, gazte elbarri bat ikusteak ematen duen penaz. Jendeak inori gertatzen zaion ezbeharrak dela uste du. Eta horrek morbo apur bat ere sortzen du. "Kazetariak beti morboarekin tratatzen duzue gaia. Gutaz ez da inor oroitzen, galiziar batek heriotza nahi duela esaten duen arte, edo aktore edo torero bat elbarri-tuak geratzen diren arte. Ez duzue benetako arazoei buruz hitz egiten —azpimarratzen dit

Mikelek— Kontua da aulkia lotuta bizi beharra dugula eta ez besterik".

Gizarteak orokorrean eta erakundeek bereziki, elbarri-aren arazoak konpontzeko gauza handirik ez dute egin orain arte. Dena den, Albertok uste du Arrasateko elbarri-aren ere ez dutela larregi presionatu. "Orain arte, bakoitzak berea egin du, baina horrela ezin da gauza handirik lortu. Arrasaten jende askok erabili behar dugu aulki gurgilduna. Batzuk hezurretako gaitasunak eraginda, beste batzuk zaharrak direlako, beste batzuk, bizkar hezurra hondatuta dugulako. Asko gara,

baina batera ez bagoaz, ez dugu inoiz ezer lortuko". Elbarriek argi daukate: irtenbideak lehenbailehen aurkitu behar dira.

Ni, neure aldetik, Mikeli aulkia itzuli nionean dudan zortiaz konturatu nintzen. Edozein bidetik zehar joateko, zuloak saihesteko eta putzuak gainditzeko gai naiz. Edozein lekutara joan naiteke, bidean zer aurkituko dudan zain egon barik. Bakarrik ibil naiteke, inoren laguntza barik. Eurak ere gai izango al dira egunen batean beste horrenbeste egiteko!

Marian Porcel

"Arrasaten elbarri asko gara, baina bakoitzak berea egiten du. Batera ez bagoaz, ez dugu inoiz ezer lortuko"

Alberto Fernandez



INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 22
20500 **ARRASATE**
79 71 68

INSTITUTO OPTICO
Andra Mari, 8
48200 **DURANGO**
94 6202986

INSTITUTO OPTICO
Hiper Eroski
20500 **ARRASATE**
79 78 26

INSTITUTO OPTICO
Grupo San Ignacio, 3
48200 **DURANGO**
94 6818492

OPTICA GARAGORRI
Iturriotz, 29
20500 **ARRASATE**
79 16 98

INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 21
20830 **MUTRIKU**
943 60 31 54



TIFFANY[®]
lunettes

**Kalitatea
saltzen dugu.**



GASTON Y DANIELA
Tapizeria • Moketak Alfonbrak



**Zatoz estreinatu dugun
erakusketa berria ezagutzera!**

**Alfonbra eta
oihalez gain,
haur eta
gaztetxoentzako
altzari sail berria
topatuko duzu!**

Kruz Gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37

A r r a s a t e k o



Matrikula epea zabalik




Ikastetxe Publikoak

gogoko zenuen irakas mota

2 urtetik hasita...
Unibertsitate
eta lan munduraino.

Lehen Hezkuntza (2 - 12 urte)
Bigarren Hezkuntza (12 - 16 urte)

Informazio gehiagorako:



San Andres: 79 00 44



Erguin: 79 77 74



Musakola: 79 04 49



Institutoa: 79 44 41



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz, 35.....☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17,1 Ezk.....☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis.....☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7, 1^a.....☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5.....☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B.....☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1.....☎79 72 16
- CRISTINA GARCIAINDIA. (Udalaitz Mediku-Zentrua) Ferrerías, 56 behea.....☎79 44 22

ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1.....☎77 14 72

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1.....☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1.....☎79 72 16

FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis.....☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37.....☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10.....☎79 48 77

MASAJISTAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk.....☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....☎77 01 33

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea.....☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6.....☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1.....☎79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2.....☎79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4.....(Mobila) ☎989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea.....☎79 20 18

PODOLOGOAK

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea.....☎79 53 63

PSIKOLOGOAK


- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10.....☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10.....☎79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37.....☎79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56.....☎79 44 22

■ Jose Felix Heriz

TAXI GIDARIA



Urtebete besterik ez darama 28 urteko arrasatear honek taxi gidari gisa. Bere lehen urtean eskatu dioten bidaiarik luzeena Zaragozarakoa izan da. Bestela, aireportuetara egiten ditu joan-etorri gehienak: Sondikara egunero, baina baita Foronda, Hondarribia eta Miarritzera ere. Herri barruko zerbitzurik gehienak, Gesalibarko ospitaleetara egiten ditu.

1.- Zein da zure horoskopoa? Eskorpio.

2.- Sinestuna zara? Bai, baina ez Elizako Jaunarengan.

3.- Animalia bihurtzekotan? Arranoa.

4.- Zure akats bat/gauza on bat? Besteeteei ez entzutea/Odol hotzekoa naiz.

5.- Zerk lotsarazten zaitu? Ezerk ere ez.

6.- Amets bat? Berdintasuna.

7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Inbidia.

8.- Gertakizun historiko bat?

Oiz mendiko hegazkin istripua.

9.- Nor miresten duzu? Mendebaldera etorritako koloreko jendea.

10.- Zeri diozu beldurra? Bakardadeari.

11.- Zeozer garbatzen zaizu? Mundua gazteagotik ezagutu ez izana.

12.- Negar egin duzun azken aldia? Ez dut gogoratzen.

13.- Zer falta zaio Arrasateri? Erreka garbia.

14.- Eta zuri? Pazientzia.

15.- Lanbidez aldatzekotan? Basozaina.

16.- Arrasateko gustuko toki bat? Altamira.

17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Erretzeari utzi.

18.- Zein egunkari irakurtzen duzu? Egin.

19.- Gustuko janari bat? Buztana.

20.- Liburu on bat? *El perfume*.

21.- Filmik onena/txarrena? *Otsoekin dantzan/Exotica*.

22.- Musika talderik onena/txarrena? *Die Toten Hosen/Opera*

23.- Telebistako saiorik onena/txarrena? Dokumentalak/Berriak.

24.- Egin dizuten oparirik politena? Eskultura bat.

25.- Denbora libre zertan pasatzen duzu? Hainbat gauzatan.

26.- Oporretarako toki bat? Iratiko basoa.

27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa.

28.- Gomendio bat? Legezkoa izan.

29.- Zeren alde emango zenuke bizia? Maite ditudanen alde.

30.- 200 milioi pta. irabaziz gero? Bidaiatu eta lur saila erosi.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

Txirrindularia

AITOR KORTABARRIA

"Gazte mailatik afizionatuetara jauzi egitea ezustea izan da"

— Fagorretik Durangoko Iturriaga taldera. Aldaketa handia, ezta?

— Baietz uste dut. Gaur arte, jubeniletan Fagor taldean ibili naiz. Orain, Iturriagan afizionatua naiz. Aldaketa ezustea izan da, batez ere, kontuan hartuta denboraldi honetan ez naizela ondo ibili.

— Non igarriko duzu aldaketa nabarmena?

— Afizionatuetan azkarrago ibiltzen da eta kilometro gehiago egiten dira. Beste aldaketa bat prestakuntzan egon daiteke. Uste dut gogorragoa izango dela.

— Zuretzat noiz hasiko da denboraldia?

— Apirilean, baina ordura arte ahalik eta gehien entrenatu behar. Asteko egun gehienetan entrenatzen dut. Gainera, bizikletan ibiltzeaz gain, gimnasia ere joaten naiz.

— Neguan gogorragoa egiten da entrenatzea?

— Ondo jantzita joanez gero, ez da hain gogorra egiten.

— Aurtengo helburuak?


— Lasterketak hasi eta bukatzea. Afizionatuetan ari tuko naizen lehen urtea izanda, ezin helburu handirik jarri!

— Dieta berezirik jarraitzen duzu?


— Pasta asko jaten dugu, baina bestela, errejimenik ez.

— Lasterketetan urduri jartzen zara?

— Egia esateko, denboraldi hasierako lasterketetan, bai.



SASKIBALOA Bigarren aldiari begira



Arrasate Saskibaloia Taldeak lehen aldiaren azken partida jokatu du larunbatean, Bacomat taldearen kontra. Iturripen arratsaldeko 18:00etan hasiko den neurketa aurrera ateratzen saiatuko dira arrasatearrak. Nolanahi ere, etxeko taldeak indar guztiak bigarren aldirako utzi beharko ditu. Izan ere, jaitsierako fasea izango baita jokoa eta hor ezin dute hanka sartzerik egin.

ERRUGBIA Bata bestaren atzetik



Azken jardunaldian Zarautzen kontra lortutako garaipenaren ondoren, Arrasate Errugbi Taldeak beste bat nahi du. Horretarako aukera aproposa larunbatean izango dute Sestaon. Bizkaiko taldeak sekula ez dio buruhauste handirik eman Arrasateri. Hori dela eta, pentsa daiteke puntuak etxera ekarriko dituztela.

ESKUBALOA Aldatzeko gertu



Arrasate Eskubaloia Taldea gaur arte erakutsi duen itxura aldatu beharrean dago. Jokalariak eta entrenatzailea garaipenak lortzeko modu egokia bilatzen ari dira. Sistema hori aurkitzea, dena dela, ez da hain samurra. Herrero entrenatzaileak dioen bezala, taldea azken tokian egoteak ez du esan nahi beste batzuk baino txarrago denik. Egia esateko, bajak direla edo


epaileen erabaki okerrak direla, ez dute emaitzetan zorte handirik izan, eta hemendik aurrera hori ordaintzen has daitezke. Igandean, Zumaiako Pulpo taldea izango dute aurka Iturripen. Partida eguerdiko 12:00etan hasiko da.

FUTBOLA Gernika bisitari Atxabalpen



Mondrako Emakume Taldeak Gernika-ren bisita izango du igandean, eguerdiko 12:00etan Atxabalpen. Gernikarrak azken tokian daude. Lehen bueltan 1 eta 2 irabazi zion Mondrak.

FUTBOLA Lehia handiko neurketa



Preferente mailako Mondrak eta Pasaia elkarren kontra jokatu dute igandean, arratsaldeko 16:00etan, Atxabalpen. Lehia handiko partida izango da. Maila honetan ez dago alde handirik taldeen artean, eta horregatik sailkapenean bakoitzak duen kokapena ez da datu adierazgarria izaten.

KARATE Gipuzkoako txapelketa

Senior mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatu da igandean Donostian. Saioa eskolatik zortzi ordezkarri joango dira. Trini Freire, Idoia Aranburuzabala, Alaitz Aranburuzabala, Garbiñe Tera, Mariano Santos, Jose Manuel Petite, Zigor Jimenez eta Erik Martin. Gasteizko taldearekin Isidor Ugarte ere joango da Gipuzkoako Txapelketara.

Bi arrasatear derbyan: Aitor Lopez Rekarte eta Imanol Etxeberria

Bihar Anoetan jokatu den derbyan bi arrasatear izango dira aurrez aurre. Realean

Aitor Lopez Rekarte eta Athletic taldean Imanol Etxeberria. Herriko seme hauek der-

bya nola ikusten duten jakiteko beraiekin jarri gara harremanetan.

Biek derbyrako gogoia dute, baina badakite garaipena lortzea ez dela hain samurra izango.

Aitor Lopez Rekarte



— Nola ikusten duzu derbya?

— Jendeak espero duen derbya da. Talde biak goialdean gaude eta lehia handia izango da. Gu, beti bezala, irabaztera zelairatuko gara.

— Athletic taldean zerk ematen dizu beldurra?

— Ezerk ere ez, baina errespetua bai. Jokalari onak ditu eta kontuz ibili beharra dago. Gainera, Joseba Etxeberria ondo zaindu beharko dugu, berak sor dezakeelako arrisku gehien.

— Lehiatz gain, sailkapenean biak goian zaude. Horrek presio handiagoa ekarriko du?

— Baietz uste dut. Zelaian presio handiagoko igarriko da eta azken arte inork ez du amore emango. Guk irabazten badugu, Athletic 6 puntu aterako dizkiogu.

— Ospakizun eta sari berezirik bai?

— Oraindik ez dugu pentsatu, baina irabaziz gero, afariren bat egingo da. Sarietarako dagokienez, ez dut ezer entzun. Hala ere, batzuetan izaten ditugu. Baliteke Athleticen izatea.

— Nolako da Imanol?



— Oso atezain ona. Orain artean hori erakutsi du. Segurua da eta itxura ona dauka. Atezainak errespetua sortzen du kornurretan eta horrelako jokaldietan. Imanol horietarikoa da.

— Giro hobea San Mamesen ala Anoetan?

— Giroa bietan izaten da. Ni Realekoa izanda, Anoetakoa gustukoagoa dut. Hala ere, San Mamesen jarraitzaileak primeran portatzen dira euren taldearekin.

— Bonba taldeari zer esango zenioke?

— Eurekin oso pozik nagoela eta Anoetara helitzen direnean segituan konturatzen garela. Izugarriko giroa jartzen dute eta harro nago horrelako talde bat dudalako.

Imanol Etxeberria



— Nola ikusten duzu derbya?

— Realak ez du Anoetan partidarik galdu eta zaila ikusten dut. Gu, dena dela, puntuak eskuratzeko kemenaz zelairatuko gara.

— Real taldean zerk ematen dizu beldurra?

— Talde osoak, aurten ondo dabilta eta. Realak kontraerasotan min handia egiten du eta hori kontuan hartu beharko dugu. Bestalde, Kovasevic ere zaindu beharreko jokalaria da.

— Lehiatz gain, sailkapenean biak goian zaude. Horrek presio handiagoa ekarriko du?

— Handiegia ez. Galitzen badugu, atzetik Deportivo eta Valencia oso indartsu datoz eta UEFari begira okerrago jar daitezke gauzak. Baina borroka egingo dugu hori gerta ez dadin.

— Ospakizun eta sari berezirik bai?

— Ez, asteartean Kopa jokatzeko Mallorkara goaz eta ez dugu ospakizunetarako denborarik. Sarietarako dagokienez, irabazteagatik ez dugu ezer berezirik. Normalean, jokoan zerbait garrantzitsua dugunean jasoten dugu sari berezia.



— Nolako da Aitor Lopez Rekarte?

— Aurten oso ondo dabil. Bere hegalean azkarrak da eta defentsa lanetan segurua.

— Giro hobea San Mamesen ala Anoetan?

— Niretzat San Mamesen. Hala ere, oso giro desberdinak dira. San Mamesen jendea gainean dauka eta zarata gehiago entzuten da. Anoetan urrutiago dago eta beste giro bat da. Bi giro desberdin, baina biak onak.

— Zer esango zenioke Imanol Etxeberria taldeari?

— Ez nekien Arrasaten horrenbeste Athletic zale zegoela eta asko poztu naiz. Nik animatzeko eskatuko nieke, Athletic-eko jokalariorik asko eskertuko dugu eta.



Argiago eta lasaiago

Lehen faseko azken txanpa sekula baino lasaiago doa. Izan ere, talde gehienak dagoeneko sailkatuta baitaude, eta horrek, nolabait esateko, bizitasuna kendu die azken partiduei. Dena dela, bizitasun faltak ez du esan nahi txapelketak bere xarma galdu duenik.

Laburrak

■ ANTOLATZAILEEN NEURRIAK

Duela hilabete, Zaldibar txapelketako antolatzaileen artean arazo batzuk izan ziren eta hainbat partida jokatu barik geratu ziren. Orduan esan genuen antolatzaile batzuen pasibotasunak piztu zuela iskanbila. Hori gerta ez dadin, Zaldibarko antolatzaileek neurriak hartu dituzte.

Lehenik eta behin, jarrera ezkorra erakutsi zuten hiru

lagunak antolatzakuntzatik kanpo uztea erabaki dute. Horretaz gain, bigarren faseko neurketak zaintzen antolatzaile bakarra egon beharrean, bi egongo dira. Azkenik, antolatzakuntzako kide batek gaitzetzekoie aurrez jakinaraziko die noiz zaindu behar dituzten partidak.

Neurri hauekin antolatzaileen artean egon daitezkeen arazoak eta nahasteak saihestu nahi dira.

■ BIGARREN ALDIA ATE JOKA

Otsailaren 22an eta 23an bigarren faseari emango zaio hasiera Zaldibar txapelketan. Partida guztiak Zaldibarko kantxan jokatu dira. Larunbatean hamaika partida jokatu dira eta igandean bost bakarrik. Bigarren faseari aurrera, epaileak antolatzaileek ezarriko dituzte. Beraz, taldeek ez dute arbitratzeko ardurarik izango.

■ BIGARREN FASEKO BILERA

Otsailaren 16an bilera izango da Monterronen, arratsaldeko 19:00etan bigarren faseari buruzko azalpen eta xehetasun guztiak argitzeko. Taldeen zozketa, berriz, astelehen horretan Arrasate Telebistako *Mondrasport* kirol saioan egingo da zuzenean, gaueko 21:30etan. Sailkatu diren talde guztiei gomendatzen zaie bilerara joatea.



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 58 06

GAMMA

ELEKTROLOGIA
ZENTRUA
BEHIN-BETIKO
DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel.: 79 51 25

Sailkapenak

Emaitzak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	15	13	1	1	90	39	27
Branka Taberna	15	11	1	3	65	38	23
Sokoakoak	15	10	2	3	85	38	22
AC Surcos	15	10	1	4	73	43	21
Nuevo taberna	15	10	1	4	76	52	21
Garaje Oscar	15	9	1	5	64	44	19
Ke Oxtias	15	7	4	4	65	39	18
Leya	15	7	4	4	86	60	18
KKJauri	15	8	2	5	50	39	18
RR Tamagotxi	15	8	2	5	40	41	18
Jotakabau	15	7	2	6	40	39	16
Pipwhis	15	6	1	8	46	43	13
Cart Igamo	15	4	2	9	39	52	10
Ganbelas	15	2	4	9	38	50	8
Potrosorri	15	2	3	10	40	70	7
Babajana Sexy	15	2	3	10	39	76	7
Onarieneg	15	2	2	11	45	83	6
Nacex.s	15	0	0	15	29	171	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	15	11	2	2	69	26	24
D. A Iriztu	15	9	5	1	66	51	23
Jey Holigans	15	11	0	4	74	44	22
Fraguel Gol	15	9	4	2	60	44	22
Betrayer	15	8	4	3	61	39	20
Jako al Rey	15	9	2	4	66	66	20
Lautherbrunnen	15	9	2	4	62	52	20
Pepelus	15	9	1	5	67	53	19
Irati STS	15	8	1	6	62	52	17
Zotz	15	7	1	7	51	50	15
DKB	15	5	2	8	56	58	12
Bukanak	15	5	2	8	61	79	12
Rotor de Bolb.o	15	4	3	8	52	53	11
Komando Alparg.	15	4	2	9	48	67	10
Ainarexia	15	2	2	11	49	89	6
Arrogoi Taberna	15	3	0	12	32	54	6
Sobred. de Claro	15	2	1	12	40	92	5
Epeh	15	2	0	13	23	41	4

A taldea
 Ke Oxtias 9 - Potrosorri 2
 KKJauri 6 - Leya 6
 Nuevo taberna 3 - Argi Ibili 6
 Cartonajes. 6 - Babajana Sexy 2
 AC Surcos 3 - Garaje Oscar 4
 Jotakabau 7 - Nacex.S 1
 Sokoakoak 1 - Pipwhis 0
 Onaniereng 2 - Tamagotxi 2
 Ganbelas 1 - Branka taberna 5

B taldea
 Pepelus 3 - DKB 3
 Zotz 3 - Fraguel Gol 6
 Ainarexia 2 - Betrayer 2
 Lautherbrunnen 5 - Irati STS 3
 Orlando Piratas 0 - Bukanak 1
 Jey Holigans 5 - Sobr. de Claro 5
 Kom. Alpargat 2 - Jako al rey 3
 Epeh - Arrogoi taberna
 Rotor de Bolbog. 3 - D A Iriztu 3

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekanika	15	13	1	1	82	37	27
Estrella taberna	15	13	0	2	96	49	26
Koka Juniors	15	11	2	2	93	49	24
Aldibi	15	9	3	3	98	52	21
Lorategi Potroak	15	10	0	5	96	40	20
AT Celaya	15	9	2	4	67	42	20
Aurrera Bolie	15	8	2	5	76	54	18
Los Heredia	15	7	3	5	61	38	17
Txeyenex	15	7	2	6	76	60	16
Totem	15	7	2	6	67	30	16
Insert Coin	15	7	1	7	63	57	15
Borroch Roll	15	5	3	7	52	62	13
Aldapa taberna	15	5	1	9	65	83	11
Kamasutra	15	2	5	8	39	59	9
Etxe Mobil	15	3	1	11	44	110	7
Makai	15	2	0	13	40	137	4
Elisabeth	15	1	1	13	29	111	3
Iluna taberna	15	1	1	13	33	97	3

Sailkatutako taldeak

A taldea	B taldea	D taldea
Argi Ibili	D. A Iriztu	Naranja Mekanika
Branka taberna	Jey Holigans	Estrela taberna
Sokoakoak	Fraguel Gol	Koka Juniors
A C Surcos	Betrayer	Aldibi
Nuevo taberna	Jako al Rey	Lorategi
Garaje Oscar	Lautherbrunnen	AT Celaya
Ke Oxtias	Pepelus	Aurrera Bolie
Leya	Irati STS	Los Heredia
Kk Jauri		
Tamagotxi		
Jotakabau		

D taldea
 Estrella taberna 1 - AT Celaya 0
 Iluna Taberna 3 - Los Heredia 7
 Koka Juniors 3 - Naranja Mek. 10
 Txeyenex 7 - Etxe Mobil 3
 Lorategi 1 - Kamasutra 0
 Aurrera Bolie 5 - Elisabeth 0
 Aldapa Taberna 0 - Totem 6
 Borroch Roll 5 - Aldibi 12
 Makai 2 - Insert coin 9



Hurrengo partiduak

Otsailak 7, Larunbata
Zaldibar
 08:50 Makai - Koka Juniors
 10:00 Lautherbrunnen - DKB
 11:00 Ke Oxtias - Leya
 12:00 Lorategi - Aldibi
 13:00 AC Surcos - Tamagotxi
 14:00 Iluna Taberna - Kamasutra
 15:00 Sobredosis de Claro - DA Iriztu
 16:00 Etxe Mobil - Totem
 17:00 Jey Holigans - Betrayer
 18:00 Aurrera Bolie - Naranja Mekanika
 19:00 Sokoakoak - Onaniereng

Iturripe A
 10:00 Irati STS - Jako Al Rey
 11:00 Zotz - Bukanak
 12:00 Estrella taberna - Los Heredia
 13:00 Ganbelas - Nuevo taberna
 14:00 Pepelus - Fraguel Gol
 15:00 Aldapa Taberna - Borroch Roll

Iturripe B
 13:00 Rotor de Bolbogrado - Ainarexia
 14:00 Nacex.S - Branka Taberna
 15:00 Elisabeth - Insert Coin

Otsailak 18, Igandea
Zaldibar
 9:50 Cartonajes Igamo - Potrosorri
 11:00 KKJauri - Garaje Oscar
 12:00 Txeyenex - AT Celaya
 13:00 Jotakabau - Argi Ibili

MARTA IZAGIRRE (ARRASATE MUSIKALEKO ZUZENDARIA)

“Diruz itota gaude eta”

Arrasate Musikal kultura elkarteak 1972ko azaroan sortu zen. Danok elkarrekin bultzaturik, desagertzeaz zegoen musika bandak utziko zuen hutsunea bete nahian. Musika kultura bultzatzea zen helburua, eta horretarako, kanpora begira, musika emanaldiak antolatu zituzten; barrura begira, berriz, musika eta musika tresnen ikasketak.

25 urte joan dira. Ospakizunak hasita daude. Egungo egoerari begira, ostera, larritzeko arrazoirik badago.

- Arrasate Musikal, musika eskola hutsa ala zerbait gehiago da?

- Musika kultura hedatzeko helburuak bere horretan segitzen du. Bestalde, gaitasuna duenari musika alorrean aurrera egin dezan laguntza eman behar diogu. Arlo pedagogikoan, teoriaren bitartez ikasitakoa praktikan jartzeko auke-

ra ematea da gure beste zeregin bat. Aurreko etapa oso teorikoa izan da.

- Zenbat izan ohi dira ikasketetan aurrera egin eta musika ogibide bihurtu dezaketenak?

- Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera, arte edo musika ikasketak hasten dituzten ehun ikasletik bik izango dute horretan ogibidea

- Zer bide geratzen zaio egiteko Arrasate Musikali?

- Eskaintza ugartu behar da. Gizartean oro har gero eta denbora gutxiago daukagu jarduerari bati eskaintzeko. Horregatik, garai berriei egokitu beharra dago: ikastaro laburrak eta zehatzagoak, eskolan ordu gutxiago egin, eta aurreratu nahi duenak etxean lan dezala.

Antolaketari dagokionez, herri bakoitzak bere musika eskola izatea oztopo handia da. Eskualdean antolatuz gero, baliabideak, azpiegitura, lan egiteko modua, hobetu egingo lirake. Erakunde bakarra izatera jo beharko genuke, eskualdean antolatuta, baina herri guztietan egoitza izanda, ikasleari batetik bestera mugitzeko trabarik ez sortzeko.

- Zer abantaila ekarriko luke horrek?

- Hobeto antolatuta egongo litzateke eta irakasleen lan baldintza



“Irakasleok pentsakera aldatu behar dugu. Nahiko geurekoiak gara, eskola partikularrak ematen ditugula dirudi”

arazoak etor daitezke”

kaskarrak hobetu egingo lirateke. Gaur egun musika eskolak nahiko atzeratuta dabilta administrazioari dagokionez, eta irakasle gehienak oso baldintza kaskarretan daude, kontraturik gabe eta gutxi ordainduta.

- Egoitzari buruz, zer berri dago?

- Bi urte barru orain gauden lekutik irten egin beharko dugula besterik ez dakigu. Udalaren aldetik ez dago oraindik erantzunik. Mila metro koadro baino gehiago behar ditugu.

- Hobeto egongo zinatekete udal musika eskola izanda, kultura elkarte moduan baino?

- Arlo ekonomikoan bai, diru galerak udalak bere gain hartuko litzuzke eta. Orain zazpi bat urte saiatu ginen horretan, baina udalbatzak ez zuen eskabidea onartu. Kultura elkarte bezala segitzea eta urte-

ro dirulaguntza ematea erabaki zuen. Orain urtero dirulaguntza lortzeko borroka egin behar dugu. Gauden herrian gaudela, pozik gaude udalak ematen digunarekin, baina diruz nahiko itota gaude. Gaur egun bazkideen kuotak dira diru iturri nagusia, udalaren dirulaguntza baino handiagoa. Beste diru iturririk aurkitu ezean, musika eskaintza murriztu egin beharko dugu.

Otsailaren 17ko Batzar Orokorrean egoera ekonomiko larriaren berri emango dugu. Dirurik ez badugu lortzen, beharbada ikasturte amaieran

irakasleek ezin izango dituzte soldatak kobratu. Edo bestela, ekintzak murriztu egin beharko dira eta musika tresnarik erosi ez; baina horrela izan behar badu, eskolak ez dauka zentzurik. Enpresei dirua eskatzen hasita gaude eta euren laguntza eskertu behar dugu.

- Ospakizunen egitarauari begiratu gero, Arrasate Musikalek antolatu ohi dituen ikuskizun handiak somatzen dira faltan.

- Prestatzeko garaian ez dugu jiran dabilen orkestrarik aurkitu. Suertatuko balitz, ekar-

tzen saiatuko ginateke.

- Zuzendari zarenetik, zeintzuk izan dira zure erronka edo lorpen nagusiak?

- Irakasleen lan egoera hobetzea izan zen nire lehengo asmoa. Aurten irakasle guztiei egin zaie kontratua eta guztiontzat ordainketa oinarri berdina hitzartu da.

Talde lana bultzatzen ere saiatu naiz, baina oraindik ez da erabat lortu. Irakasleek pentsakera aldatu behar dute. Nahiko geurekoiak gara, eskola partikularrak ematen ditugula ematen du.

- Eta zer geratu da hurrengo agintaldirako?

- Irakasleak proiektuaren parte sentitzea bultzatu behar da. Eskaintzen dugun irakaskuntza kalitatearen balioztatzea egin behar da eta gurasoen iritzia jaso. Orain arte inori ezer galdetu gabe egin dugu lana. ■

“Herri bakoitzak bere musika eskola izatea oztopo handia da. Eskualdean antolatuz gero, lan egiteko modua hobetu egingo litzateke”



PARDO estetica zentrua

■ Solarium-a dutxarekin

10 sesio + 1 doan = 8.000 pta.!!!

■ Gorputzerako tratamenduak (Ostar)

Erreafirmatu, moldeatu eta bolumena gutxitu.

Sesio bakoitza: 2.700 pta.!!!

- Depilazio progresiboa
- Dépilazio elektrikoa
- Zelutiti murriztailea

- Drainaketa linfatikoa
- Erreafirmatzailea
- Mantenimendua

Eskaintza bereziak!



Liburuak txukun-txukun

Liburuak josteko ikastaroan egindako lanak Monterronen ikusgai

Koadernotxoak josi, estutu, kola eman, indartu, azala egin... gorde nahi ditugun aldizkari edo apunte horiek edozein txokotan pilatu edo apalategian liburu itxura emanda erakutsi, alde ederra dago. Aldea, eta lana. Liburuak jostea artisaun lana da, eta artisaun lan guztiek bezala, emaitza ikusgarriak sor ditzake, baina dedikazioa behar du.

Berez ez da lan zaila. Nork bere etxean egitekoa da. Tresneria berezirik ere ez da behar. Hori bai, ezinbestekoak dira pazientzia handia, gogoia eta irudimena.

Maite Barandiaranen gidaritzapean, liburuak josten irakasteko ikastaroa egin zen Monterronen joan den udazkenean. Zortzi lagunek zazpi larunbat goiz igaro zituzten liburu bat azaleztatzeko modua ikasten. Pentsa daiteke zazpi goiz nahikoa dela liburu bat josteko, baina ikasle batzuei motz egin zitzairen.

Lehenbizi orriak (apunte-



en kasuan) edo koadernotxoak (aldizkarien kasuan) josi behar dira. Josteko hari sendoa erabiltzen da, eta trinkotasuna emateko, oihalezko zintak ere josten zaizkie orriei. Gero liburua estutu behar da, prentsa batean, edo besterik gabe, gainean pisu nahikoa jarrita. Azalari dagokionez, aldizkari bildumen kasuan batzuetan etxeak berak oparitu

ohi ditu, baina besteetan norberak egin behar ditu. Horretarako, kartoia neurrira moztu eta aukeratutako paper, oihal, plastiko edo larruz forratu behar da. Amaitzeko, azken apaingarriak josten dira, orriak markatzeko erabili ohi diren oihalezko tiratxoak adibidez, eta orriak eta azala kola eman da itsatsi.

Ikastaroan parte hartu

zuten zortzi lagunak, etxean zituzten apunte eta aldizkariak nola azaleztatu ikasi nahian hurbildu ziren.

Maite Barandiaran irakaslea bera, denborapasa hasi zen lan honetan, baina gero enkarguak jasotzen hasi zen eta gaur egun bakarra da Arrasaten liburuak josten dituen. Horrenbeste lan egin ostean, zeregin hau apur bat utzi nahian dabil. Berak dioenez, "eskulanetarako trebea izanda, lanik gabe dagoen jendearentzat dirutxo bat ateratzeko aukera eman dezake".

Monterronen antolatutako erakusketan, alde batean liburuak josteko bidea ikus daiteke, eta bestean, emaitzak, ikastaroan ikasle izan zirenek egindako lan txukunak. Gainera, edozein azalpen emateko prest daude. Erakusketa igandea bitartean izango da ikusgai, 12:00etatik 14:00etara eguerdi partean, eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldean.



LASAGABASTER

USTE OSOKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

JOANA MANZISIDOR, HARATUZTEETAKO HORMIRUDIAREN EGILEA

“Marraztea dut gustuko”

Epaimahaia harrিতuta geratu zen, aukeraketa egin, kartazala zabaldu, eta egileak 15 urte zituela ikustean. Harritu bai, baina baita poztu ere, saria gazte batek eskuratu duelako.

Hemen ondoan duzuen hau izango da aurtengo Haratuzteak iragarriko dituen hormirudia, eta Joana Manzisidor, bere egilea. REM bigarren mailako ikaslea da San Viator ikastolan.



- Marraztea gustatzen zait. Hormirudiaren orijinala olioia da, baina margoa ez dut oso gustukoa. Monterongo margo ikastaroetara joateari utzi nionetik, oso gutxi landu dut margoa, baina marrazki asko egiten ditut.

- Ez da oso ohikoa hain parte hartzaile gazteak izatea lehiaketetan.

- Askotan aurkeztu izan ditut lanak, baina irabazi dudan lehenbiziko aldia da hau. Bost urte nituela hasi nintzen Monterongo margo ikastaroan. Zazpi urte igaro nituen han. Askotan aurkeztu genituen lanak Haratuzteetan edo San Joanetako hormirudi lehiaketetan.

Oraingoan ere, ikastolan behartuta egin behar izan genuen Haratuzteetako hau. Ikasgelako kide batzuek gure lanak lehiaketara aurkeztu genituen. Hasieran ez nuen aurkeztu nahi. Ez nuen inondik inora espero irabaztea.

- Sariaren 50.000 pezetekin, zer egingo duzu?

- Ez dakit. Bat-batean esanda, diru asko da, baina zertan gastatu pentsatzen hasiz gero, ez da hainbeste. Margoak eta, erosteko behintzat, ez dut erabiliko.

- Margotzeko zaletasuna duzu?



- Zer adierazi nahi izan duzu hormirudi honetan?

- Haratuzteetako pertsonaia ezagun bat da eta poztasuna adierazten du. Laranja eta urdin kolore bizien arteko kontrastea aprobeztatu dut.

- Sari hau irabazi ondoren, asmorik bai beste lehiaketetan

aurkezteko?

- Ikastolan lan hori jartzen badigute bai, baina bestela ez dut uste. Eskolaz kanpo egiteko, lan handia da. Marrazkia berehala egin nuen, baina margoak eta lehertzen uzteak denbora behar du.

“Ikastolak behartuta egin behar izan genuen Haratuzteetako hormirudia. Hasieran ez nuen aurkeztu nahi”

aste gazte

■ KONTZEPZIO-KONTRAZEPZIO KANPAINA

• Otsailaren 2tik 26ra, gaiari buruz nahi duzun informazioa izango duzu, Informazio eta Orientazio Sexualeko Bulegoan (Garibai Etxea), astelehentean 18:00etatik 20:00etara eta ostegunetan 15:30etatik 17:30etara.

■ LANA

• Eusko Legebiltzarrak, liburutegi, artxibo eta dokumentazioko lau laguntzaile langune bete nahi ditu. Epea: otsailak 11.

• Getxoko *Jesusen Bihotza* egoitzan enplegatua behar da. Epea: otsailak 12.

• Osasunbidea, Nafarroako Osasun Zerbitzuak, lan poltsa egin nahi du langune-hautentzat: ATS, erizain laguntzaile, laborategiko espezialista eta fisioterapeutak. Epea: otsailak 12.

• Aialako Mankomunitateak, gerente bat eta administrari laguntzaile bat behar ditu. Epea: otsailak 14.

• Osakidetza hainbat langune bete nahi du:

Emergentziarako medikuak, lehen mailako atenziorako medikuak, osasun zerbitzuetarako medikuak, larrialdietarako medikuak eta pediatriak. Epea: otsailak 22.

Fisikariak, mediku espezialistak eta botikariak. Epea: otsailak 23.

■ LEHIAKETAK

• Arrasateko Udalak erattuta, *Martxoak 8* eguna iragartzeko hormirudi lehiaketa. Epea: otsailak 18.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Uribe auzoan etxebizitza salgai. Sukaldea, lau logela, 2 bainugela, egongela eta trastelekua. 104 m². Tel.: 79 27 45.

- Otorala Lizentziatua kalean 45 m²ko estudioa salgai. Kontsultarako aproposa. Tel.: 79 27 45.

2. Erosi

- San Andres auzoan etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

- 60 m² inguruko konpontzeko dagoen etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 77 10 44 eta 908 77 33 27.

3. Errentan emateko

- Etxebizitza alojeran jarriko nuke, ahal bada ikasleentzat. Aretxabalean dago, futbol zelaiaren ondoan. Tel.: 79 63 49. Iñaki. Gaueko 21:00etatik aurrera.

- Hiru edo lau ikasleentzako etxebizitza alokagai San Andresen. Tel.: 79 51 88.

4. Errentan hartzeko

- Bikote batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 79 02 26. Arantzazu.

- 3-4 logela dituen etxebizitza behar dut lehenbailehen. Tel.: 908 14 48 42. Jesus.

- Etxebizitza txikia, atiko edo teilatupea alokatuko genuke, merkea balitz. Tel.: 70 09 52. Gauez.

5. Etxe konpartituak

- Gela bat nahi dut Arrasateko etxe konpartitu batean. Tel.: (94) 438 69 17.

- Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten, jendearakin bada hobe. Tel.: 36 30 40 edo 21 57 07. Unai.

- Alokutatuko etxe batean edo pentzio batean sartuko nintzateke. Deitu 79 09 00 telefonora. Olatz, Gizarte laguntzaileaz galdetu. Roberto.

GARAJEAK

7. Saldu

- Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineako dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdian baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Etxebizitza batean logela bat alokatuko nuke. Tel.: 948 25 47 16. Deitu gaueko 22:30ak baino lehen.

9. Errentan emateko

- Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gauez.
- Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

- Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

10. Errentan hartzeko

- Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.
- Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

LOKALAK

12. Saldu

- Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

- Leintz Gatzagako Zuhaitz jatetxea alokatzen da. Tel.: 71 41 21.
- Loradenda eta dietetika denda alokagai Berrizen. Tel.: (94) 682 42 28.
- Bergarako Ubera auzoan lokala daukat alokatzeko. Tel.: 79 05 63. Utzi mezua.

15. Errentan hartzeko

- Arrasaten lokal komertziala edo industrial hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.
- Gazte batzuk lokal baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.
- Gazte talde batek lokala errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

LANA

17. Eskaintzak

- Etxeetara arropak plantatzera joateko gertu nago. Tel.: 79 05 53.
- Umeak zaintzeko edo orduka garbiketarako egiteko gertu. Tel.: 71 53 74. Bazkalordutan edo gauetan deitu.

- Emakume euskaldunak umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tel.: 79 07 73.

- Pertsona gaztea edozein lan egiteko gertu. Tel.: 79 48 97.

- Esperientziadun klinika laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 09.

- Asteburuetan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel.: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

- Esperientziadun saltzailea lan egiteko gertu. Tel.: 79 31 58. Asun.

- Asteburuetan eta jai egunetan emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 76 03 42. Eguerdietan.

- Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Orduka ere bai. Tel.: 79 51 29.

18. Eskaerak

- Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tel.: 79 35 73. Gauez deitu.

- Emakumea behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 77 13 91.

- 17-25 urte bitarteko kamareroa behar da. Tel.: 79 60 43. Iñi.

- Baserri lanetarako pertsona bat behar da. Tel.: 33 05 95.

- Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 35 73.

- Sukalderako laguntzailea behar da. Tel.: 79 11 25.

- Kamarero euskaldunak behar dira. Tel.: 78 35 26.

19. Denetarik

- Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

- Suitzara *au pair* bezala joateko neska bat behar da. Frantsez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

- Eskuak jarrita osatzeko modu naturala (Reiki). Tel.: 79 45 74.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Alemaniera ikasten hasi nahi baduzu, eskola partikularrak emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainitze.

• Psikologoak OHoko eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 17 02.

• Jantzigintza eskolak ematen dira. Tel.: 79 53 36. Izaskun.

21. Eskaerak

• Frantseseko eskola partikularrak hartuko nituzke goizetan. Dei egin eguerdiko ordu batean 75 17 50 telefonora.

• 2. BUPeko ikasle batek matematikako eskolak gaztelaniaz hartuko lituzke. Tel.: 79 55 96.

• 2. REMeko ikasgaiak lantzeko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 19 36. Aitor.

MOTORRA

23. Saldu

• Ford fiesta XR2 lehenengo modelokoa salgai. BI-AB. Prezioa: 175.000 pta. Tel.: 79 37 68.

• Suzuki Hard Top 4x4 autoa salgai. Gris metalizatua. 5 martxa-

duna eta estriboetako babesgarriekin. Tel.: 79 09 92. Eguerdiko 13:00etatik 16:00etara.

DENETARIK

26. Saldu

• Egoera onean dagoen disc-man-a salgai. Tel.: 79 09 92. Bazkalorduetan edo gauez.

• Marrazketako mahaia salgai. Merkea. Neurriak: 81 x 140 zm. Tel.: 79 09 92. Bazkalorduetan edo gauez.

• Baserriki kiwi ederrak salgai. Auke-ra ederra! Tel.: 79 97 84.

• Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Egur kolorea duen sehaska berria merke saltzen da. Tel.: 79 56 53. Isabel.

• Ordenagailua salgai. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Kenwood 758 R autorako irratia eta CDa salgai. Bi subwoofer JBL 400 w ditu. Prezio interesgarria. Tel.: 79 26 16 edo 79 27 70. Urtzi.

• Mastin arrazako bi txakurkume salgai. Tel.: 33 05 95.

• Fagor markako 10 litroko ur bero-gailua salgai. Tximinia du eta ia berria dago. Merkea. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Game Boy-a salgai. 2 joko. Tel.: 79 12 95. Miren.

27. Erosi

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

30. Hartu

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailua behar ditu. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Paper garrantzitsu batzuk zituen karpeta urdina galdu nuen ia azko urriaren 28an San Andresen. Tel.: 970 41 74 08.

• Urtarrilaren 11n urrezko erloju galdu nuen Olarte eta Erdiko Kale bitartean. Balio sentimental du. Eskertuko da. Tel.: 79 89 32.

• Urtarrilaren 10ean Untzila eta Aretxabaleta bitartean irradi transmisio-rea galdu zitzaidan. Tel.: 79 41 57.

• Giltzak galdu ditut Uribe auzoan. Tel.: 71 53 40.

• Urtarrilaren 20an edo 21ean urrezko eskumuturrekoa galdu nuen Arrasaten. Zuria eta gorria da. Tel.: 79 84 23.

32. Aurkitu

• Gurutze idatzita daraman katea aurkitu dut. Tel.: 79 77 79.

• Zaldibarren forro polarra eta patin batzuk aurkitu nituen. Tel.: 79 28 38.

• Muru bidean ezkontzako eratzuna aurkitu nuen. Tel.: 79 53 40. Gaueko 10:00etatik aurrera.

37. Bestelakoak

• Zure etorkizunaz -osasuna, lana eta maitasuna-jakin nahi baduzu, zure esanetara naukazu telefono honetan: 929 98 62 20.

• Jakizue larunbat honetan geure kanta bat *zerrendagai* izango dela Euskadi Gaztean. Beste behin ere zuen partaidetza eskatzen eta eskertzen dizuegu. Zabal ezazue geure mezua eta segi zirikatzen irradi uhinetan ere.



LORAMENDIN

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Txandalak
- Sudaderak
- Zapatilak eta abar

ZATOZ!

% 50

San Andresen eta Garibain

■ Horoskopoa

- **Aries** Kendu hortik, tximista bat jausiko da eta.
- **Taurus** Frankesteinek zu baino zapata arinagoak zituen.
- **Gemini** Zure alde ilunak argia ikusiko du.
- **Cancer** Euliak ez tira bezala joango dira neskak zure aldamenera.
- **Leo** Gezurra badirudi ere, zure lagunak asko maite zaituzte.
- **Virgo** Txorimalo aurpegia izango duzu egun hauetan.
- **Libra** Paradisurako txartela poltsikotan izango duzu.
- **Scorpio** Txingurriek zure etxeko zuta-beak jango dituzte.
- **Sagittarius** Saskibaloit taldeak beti gal-tzen duela? Eta zer?
- **Capricorn** Lagunak hipnotizatzen dituzu zeure ahots sakonarekin.
- **Aquarius** Eskuar-tean duzun proiektua, arrakastatsua izango da.
- **Piscis** Sasien eta lainoen gainean zaudete.

■ Hitz gurutzatuak

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10			11		12	
13		14			15	
16				17		18
19				20	21	
22						

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Zatitzearen ekintza. 8. Emetasunez, leunki. 9. Amerizioa. 10. Zamorako ibilgailuetan. 11. Agian, beharbada. 13. Argizpi. 15. Octavio, idazle mexikarra. 16. Mapa eta irudiz osatutako geografia liburua. 18. Musika-eskalako lehen nota. 19. Jakoboen zazpigarren semea. 20. Aranondoren jateko fruitua. 22. Gipuzkoako udalerría, Oria ertzean.

Bertikalak 1. Rosarito, Ibai-Arteko lehendakariaren abizena. 2. Arropak ez zikintzeko sukaldean erabiltzen den gaineko jantzi arina. 3. Alfabetoko hogeita batgarren letraren izena. 4. Dardara. 5. Laosko diru-unitate nagusia. 6. Indar handirik gabeko kolpea. 7. Mitologia grekoan, alegiazko emakume gerlaria. 12. (Ald.) Gutxi gorabehera 3,1416ko balioa du. 14. Albo. 17. Putre. 21. Eguzkiaren jainko egiptoarra.

Horizontalak: 1. Zaitzeta. 8. Emeki. 9. Am. 10. Za. 11. Apika. 13. Inar. 15. Paz. 16. Atlas. 18. Do. 19. Gad. 20. Aran. 22. Alegia.
Bertikalak: 1. Zeziaga. 2. Amantal. 3. Te. 4. Ikara. 5. Kip. 6. Takada. 7. Amazona. 12. (Ald.) Pl. 14. Aida. 17. Sat. 21. Ra.



Lan eskaintzak

ARKO • Arrasate Komunikabideak

Gerentea

Ezinbesteko baldintza

- Euskara ondo menperatzea

Kontuan hartuko dira

- Administrazioan edo ekonomian titulazioa eta esperientzia
- Komunikabideen ezagutza
- Lantaldeak antolatzeke eta zuzentzeko gaitasuna
- Harremanetarako erraztasuna
- Komertzialgintzan esperientzia

Curriculumak aurkezteko epea OTSAILAren 12an bukatuko da

Arrasate Press

Maketagilea / Diseinatzailea

Ezinbesteko baldintzak

- Euskara ondo menperatzea
- QuarkXPress, Photoshop eta FreeHand ezagutzea

Kontuan hartuko dira

- Herri aldizkariaren eta komunikabideen ezagutza
- Argazkigintza ezagutzea
- Internet ezagutzea

Curriculumak eta egindako lanen adibideak aurkezteko epea OTSAILAren 13an bukatuko da

Curriculumak ARKOko Administrazio bulegoan jasoko dira

Otalora Lizentziatua, 31 • 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 79 02 26

Kaleidoskopioak zinerako sarrerak zozkatuko ditu

Kultura saio berria ATBn

Unai Iparragirrek eta Aitziber Langarnek aurkeztuta, asteartean estreinatuko da *Kaleidoskopioa*, kultura saio berria. Kulturaren esparruan Arrasaten edo eskualdean sortzen diren berriak edo geurera datozen ikuskizunak hizpide izango dira, baina ikuspegi zabalagoarekin jokatzuz, protagonista orokorrak ere ekarriko dituzte ATBko platora.

Saioak lau atal izango ditu: kulturaren alorreko protagonista bat gonbidatuko dute saiora, berdin Arrasatekoa edo kanpokoa. Irudiak ere eskainiko dira: musika edo antzerki emanaldietan, erakusketa eta abarretan jasotako irudiak.

Oihana Altunak liburuen alorra jorratuko du: Monterrongo liburu berri, zahar, bitxi edo irakurrienak, liburuen iruzkinak, gomendioak...



Unai, Maria, Oihana eta Aitziber, saioaren gidariak

Maria Agirrek, estreinatutako berri diren edo bailarako zinetokietan eskainiko diren filmen irudi eta iruzkinak eskainiko ditu. Tarte honetan zinerako sarrerak zozkatuko dira: Gasteizko Samaniego eta Guridi zinemetarako bi sarrera eta Alai zinemarako lau. Telefonoz zuzenean galdera bati erantzunez eskura-

tu ahal izango dira sarrerak.

Datorren astearteko gonbidatua Mikel Gorosabel *Norton* izango da. Asier Serrano poetarekin batera sortu duen *Lorelei* taldeaz eta kaleratu berri duten *Bada Hiri Gorri Bat* diskoaz mintzatuko dira. Beren kantekin egindako bi bideo-klip ere ikusi ahal izango ditugu.

Arrasate Irratia 107.7 FM

LARUNBATA

9:00 **Albistegia**
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarrekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaizola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Albistegia**
9:30-11:00 **Goizoro**
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena
21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginitako magazina.

Osteguna


22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaïttin Allenderekin.

Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasola eta Pedro Costarekin.
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 7	ASTELEHENA, 9	ASTEARTEA, 10	ASTEAZKENA, 11	OSTEGUNA, 12	OSTIRALA, 13
Astean zehar eskainitako saioarik interesgarrien errepika.	13:30 Astebete. (Errepika)	13:30 Mondrasport. (Errepika)	13:30 Kaleidoskopioa. (Errepika)	13:30 Tertulixan. (Errepika)	13:30 Kukaratxa Motel. (Errepika)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30 Berriak.	19:15 Kukaratxa Motel. FINALA.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zal dibarko futbol txapelketa, gonbidatuak..., eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Kaleidoskopioa. Unai Iparragirre eta Aitziber Langaran. Gonbidatua: <i>Lorelei</i> taldeko Mikel Gorosabel Norton.	21:00 Tertulixan. Iñaki Olaizola. Iñakik eta bere gonbidatuek azken asteetako gertakariak izango dituzte aztergai.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	21:30 Astebete. Patxi Montero. Astean zehar jasotako berrien gainbegiratzea.
14:45 Lotsa Barik. Gonbidatuak: <i>Ekon</i> taldeko Iban eta Yago.				21:30 Kukaratxa Motel.	



Arrasate Musikalen Orkestrak emanaldi ugari egin ditu han-hemenka. Horieta-ko bat 1980an Donostiako Victoria Eugenia antzokian egin zuena.

Atzeko ilaran, ezkerretik hasita, Jesus Azkarate Zelaixxo, Fermin Aranbarri Kuki, Pablo Maidagan,

Eduardo Arzamendi, Adolfo Ruiz de Austri, J.M. Zalama, Xabier Arizabaleta, Karmelo Muñoa, Koldo Muñoa, Juan Olabe, Andoni Aranbarri, Alvaro Cristobal, Luis Sagasta (organoan), J.M. Arriola eta Juanjo Arzamendi.

Bigarren lerroan, Luis Usatorre, Zorione Ortubai, Lutxi Garcia, Aitor Aranburu, Luis M. Terrazas, Alvaro

Garcia, Juan Carlos Diaz eta Elena.


Hirugarren lerroan, Tere Roa, Rebeca Garcia, Nestor Maidagan, Begoña Balanzategi, Javier Lazkano, Jon Aranbarri, Iñaki Maidagain, Rafa Kortabarria, Jose Luis Urzelai, Iñaki Agirreurreta, Alberto Arzamendi, Hector Landaluze, M^a Pilar Fernandez eta Alzira Egidazu.

Laugarren lerroan,

Albina Madinabeitia, Beatriz Arzamendi, Raul Puerto, Izaskun Zubizarreta, Arantxa Bergaretxe, Conchi Zabala, Belen Mendieta, Eli Auzmendi, Edurne Mendieta, Pilar Huici (irakaslea). Zuzendari: Juan Arzamendi.

Urtea: 1980

Berriemailea: Marta Izagirre

TELLERIA

AUTO-ESKOLA

Juan Carlos Guerra enparantza
 Tfnoa: 79 18 39
ARRASATE

Mitarte, 18
 Tfnoa: 79 53 51
ARETXABALETA

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Dokorea

HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
--	---

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
 Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

ORTO + LAGUN
 O R T O P E D I A

Gerriko ala bizkarreko minez zabilta?
 Lunbago eta ziatikarako faja elastikoak ditugu zuretzat
 Zugan pentsatuz, beti laguntzeko prest

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34


Comercial
ARPE

Era guztietako artikulua
ileapaindegietarako

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
 Tel.: 79 78 09

ALMEN

**SAN FRANTZISKO
XABIER**

SAN VIATOR

UMEZAINZA

Hezibide bailarari hezkuntz egitura kooperatibo aberatsa ematen dion elkarte, gure eskeintza azaldu nahi dugu.

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak.



Deba Garaian etorkizuna eraikitzen



- zuk eraiki duzun eskola: ikastola.
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza.
- etengabeko hobekuntzako konpromezua.
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa.

MATRIKULA otsailaren 26tik martxoaren 11ra **ZABALIK**

zatoz ezagutzera




UNITED COLORS
OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE



**OKENDO
KIROLAK**
KIROL MODA GUZTIA
BEHERAPEN BEREZIEKIN!

- TXAMARRAK
- TXANDALAK
- ZAPATILAK



DESKONTUAK!

Maalako Errabala, 13 behea • ARRASATE • Tel.: 79 92 76